




KULTURA

PAYS BASQUE

www.kultura-paysbasque.fr

ANTZERKIGINTZA ARLOKO SORKUNTZA ETA ESZENARATZEAREN INGURUKO FORMAKUNTZA



Antzerkigintza arloko sorkuntza eta eszenaratzearen inguruko formakuntza (EUS)

Kaskarot

Amua

Ikuskizunei lotua

Bi tailerraz osatu formakuntza batean parte hartzea proposatzen die irakasleei Axut! Kolektiboak. Antzerki lan baten sorkuntza ikasteko tresna sinple eta ondoriotsuak (gaia, testua) eta honen zuzendaritza (forma) eskaintzea da helburua, ikasleekin praktikan ezartzeko gisan.

Bi arratsaldez etortzea hitzartzen da formakuntza segitu nahi duen irakaslea.

1. FORMAKUNTZA:

2020EKO ABENDUAREN 2AN, ASTEAZKENAREKIN

Idazketa tailerra

Hizlariak: Arantxa Hirigoyen eta Ximun Fuchs

Helbidea:

Larreko kulturgunea,

Xan Ithourria Plaza,

Senpere

Tenorea: 14:00 > 17:00

Formakuntzaren helburuak:

Tematika bat, gai bat hautatu beharko da: nondik abiatzen da kontatu nahi dugun istorioa? Ondotik, irakasleek gogoetatuko dute jakiteko zoin testuinguruan (historiko, politiko, soziala) gertatzen den haien istorioa. Azkenik, ikusiko dute nola liluratu eta inplikatu ikasleak, parte har dezaten eta dizplinarreko egitasmo batean motor izan daitezen.

2. FORMAKUNTZA:

2020EKO ABENDUAREN 16AN, ASTEAZKENAREKIN (EUS)

Zuzendaritzaren inguruko ariketa praktikoak

Hizlariak: Ximun Fuchs eta Manex Fuchs

Helbidea:

Larreko kulturgunea,

Xan Ithourria Plaza,

Senpere

Tenorea: 14:00 > 17:00

Formakuntzaren helburuak:

Egoera bati, istorio bati forma nola eman ikusiko dute irakasleek. Zuzendaritzaren inguruko ariketa praktikoak egingen dituzte ondotik, aitzineko tailerran asmatu testuak moldatzeko, forma emateko.